



MIMAT

FUNTSEZKO SOZIETATEAK


Gure proiektuak aurrera egin dezan, **beharrezkoa** da zenbait **aliantza** egitea, gure bezeroak zerbait izatera ailegatzeko aukera bakarra direlako. Guk **ezagutzera emateko ahalmena** daukagu, baina gero ez daukagu beraien ametsa aurrera eramateko baliabiderik.

Gure enpresaren sekzio bakoitzarentzako aliantza desberdinak egin ditzakegu:

- **Musikaren arloan**, aukera desberdinak ditu:

Diskografikekin hitz egin dezakegu edo herriko jaietako antolatzaileekin.

- Diskografikak: gure bezeroen ametsa aurrera eramatera lagunduko digute.
- Herriko jaietako antolatzaileek: gure bezeroak beste kontzertu baten teloneroak izatea lortu dezakete.
- Gainera, gure klaseko kide batzuen proiektuarekin bateragarria da (Business Sharks). Haien enpresa Aisitime deitzen da eta bere ideia gazteentzako ekintza desberdinak egitea denez, gure musikariak bertan jardun dezakete, kontzertuak edo erakusketak eginez.



- **Marrazketa arloan**, gure laguntza erakusketak egiten duten elkarteekin kontaktuan egotea da. Museokekin eta erakusketa lekuekin aliantzak egitea, aukera zoragarria izango litzateke gure bezeroek haien lanak aurkeztu ditzaten.



- **Idazketa arloan**, musikaren arloan bezala gure bezeroei laguntza emateko beste enpresa batzuekin egin ditzakegu aliantzak. Enpresa hauek editorialen eta liburu denden mundukoak izan daitezke.